HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

7197

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko Administrazioa eta Zerbitzuen sailburuordearena, 2008-2009 ikasturtean Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak garatzeko, udalei, mankomunitateei, edo horiek sortutako erakundeei eta erakunde pribatuei dirulaguntzak emateko deia egiten duen Aginduaren zenbatekoa handitzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren, 2008ko uztailaren 22ko Aginduaren bidez, 2008-2009 ikasturtean, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak garatzeko, udalei, mankomunitateei edo horiek sortutako erakundeei eta erakunde pribatuei diru-laguntzak emateko deia egiten da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa horretarako izendatutako guztirako zenbatekoa aztertu eta ikusi da diru gehiago beharko dela aurkeztu diren eskabide guztiei erantzuteko. Kontuan izan da 2008ko uztailaren 22ko Aginduko 2. artikuluak dioela bertan ezarritako guztirako kopurua handitu daitekeela aurkeztutako laguntza-eskabideen guztirako zenbatekoaren arabera eta aurrekontuan baliagarria dagoen zenbatekoan arabera, eskabideez ezer ebatzi baino lehen.

Hori dela-eta, ebazpen honen bidez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa horretarako izendatua zuen zenbatekoa handitu nahi da.

Aurrekoa kontuan hartuta eta Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzak proposaturik, honako hau

EBATZI DUT:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko uztailaren 22ko Aginduko 2. artikuluan konsignaturiko zenbatekoa, laguntzetarako deialdikoa, aldatzea; kopuru horri bi milioi laurehun eta hogeita zazpi mila bostehun eta zortzi euro laurogeita lau zentimorekin (2.427.508,84) gehituko zaizkio, honako era honetan banaturik: hasiera-batean zortziehun eta hogeita bost mila hirurehun eta berrogeita hamabi euro hirurogeita sei zentimorekin (825.352,66), 2008. urteko aurrekontu-ekitaldiaren baitakoak; eta bigarren aldi batean milioi bat seiehun eta bi mila ehun eta berrogeita hamasei euro hemezortzi zentimorekin (1.602.156,18), 2009. urteko aurrekontu-ekitaldiaren baitakoak.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 9a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

7197

RESOLUCIÓN del 9 de diciembre de 2008, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se amplía el importe de la Orden por la que se convocan subvenciones a ayuntamientos, mancomunidades o entidades creadas por ellos y a entidades privadas para el desarrollo de Programas de Cualificación Profesional Inicial durante el curso 2008-2009.

Mediante la Orden de 22 de julio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se convocan subvenciones a ayuntamientos, mancomunidades o entidades creadas por ellos y a entidades privadas para el desarrollo de Programas de Cualificación Profesional Inicial durante el curso 2008-2009.

Revisado el importe total dedicado por el Departamento de Educación Universidades e Investigación a este programa se comprueba que es necesario proceder a la ampliación de dicha cuantía, dado el número de solicitudes existentes y dado que en el artículo 2 de la Orden de 22 de julio de 2008, recoge la posibilidad de ampliar el importe global consignado en este artículo, teniendo en cuenta la cuantía global de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias y con carácter previo a la resolución de las mismas.

Por lo que, a través de esta Resolución se pretende proceder a la ampliación total de la cuantía que para este programa tenía reservado el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Por lo anterior y a propuesta de la Dirección de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización,

RESUELVO:

Modificar el importe consignado en el artículo 2 de la Orden de 22 de julio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, al que asciende la mencionada convocatoria de ayudas, ampliando dicha cantidad en un total de dos millones cuatrocientos veintisiete mil quinientos ocho euros con ochenta y cuatro céntimos (2.427.508,84), desglosada en una primera cantidad de ochocientos veinticinco mil trescientos cincuenta y dos con sesenta y seis (825.352,66) euros, imputables al ejercicio presupuestario del año 2008 y una segunda cantidad de euros un millón seiscientos dos mil ciento cincuenta y seis con dieciocho (1.602.156,18) euros imputables al ejercicio presupuestario del año 2009.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2008.

El Viceconsejero de Administración y Servicios,
PABLO LARRAURI ALTONAGA.